

{ analisisia } **Isidro Esnaola**

Denbora, gerra eta prezioak

Denbora ekonomiatik desagertzea lortu zuten ia-ia. Orain dela gutxi arte bururatzen zitzaigun edozer ia berehala lor zitekeen, Interneteko zoko bateko bazarrean bazen ere. Erlojuaren gisa funtzionatzen zuen denak, eta beti geratzen zen edozein larrialdiren edo ezustekoren aurrean erreakzionatzeko gaitasun produktibo pixka bat, harik eta pandemia iritsi eta konturatu ginen arte dena ez zegoela hain eskura eta denbora zenbatzen hasi zela.

Lehenik eta behin, osasun arloko materialik ez izateak garestitu zituen prezioak, eta dena ezin dela berehala gertatu erakutsi zigun. Hor ikasi genuen ekoizten duen herrialdeak behar duena hartzen duela eta gero besteei askoz garestiago saltzen diela. Ikasi genuen, halaber, zerbait fabrikatzeak aurretiazko inbertsio prozesu bat eskatzen duela, eta merkantziaren arabera nahiko luzea izan daitekeela. Atzerapen horren ondorioz, eskaintza ez zen iristen eskaerari erantzuteko, eta prezioek gora egiten zuten.

Hori guztia pandemian ikasi genuen, eta zenbait prezioek gora egin bazuten ere, oro har begiratuta, inflazioak ez zuen gora egin konfinamenduengatik eta jarduera ekonomikoaren beherakadagatik.

Inflazioaren erroak sakonak dira. Neurri handi batean prezioen gorakada EBk hartutako hainbat erabakiren ondorioa da.

Konfinamendu horiek beste aldi baterako desoreka batzuk eragin zituzten, ordea. Ekoizpen batzuk gelditu egin ziren, eta egoera pixka bat normalizatu zenean, kosta egin zitzaien abiaraztea, produktu batetik bestera igarotzeko ere denbora behar baita. Esate baterako, mikrotxip fabrikek konfinamenduarekin ekoizpena aldatu zuten, eskaeraren arabera. Industria batzuek jarduerari berriro ekin ziotenean eta mikroprozesadore mota zehatz batzuk eskatu zituztenean, ekoizpena dezente atzeratu zen: aldaketa burutzeko denbora behar da.

Era berean, konfinamenduak eta, batez ere, pandemia- inguruko ziurgabetasunak inbertsio asko geldiarazi zituen, bereziki energiaren sektorean, petrolioaren eta gasaren erauzketan. Horregatik, jarduerari berriro ekin zitzaio- nean, beharrezkoa izan zen zaharkitutako ekipoak orde- ztea, planta berriak eraikitzea

eta putzu berriak zabaltzea, hidrokarburoak erauztea gero eta zailagoa den une batean gainera, erraz ustiatzeko hobi edo meategiak agortu egin baitira. Atzerapen horrek guz- tiak, erraz ondorioztatu daite- keenez, prezioak garestitzea ekarri zuen. Gainera, inber- tsioak atzeratu izanak zama handiagoa ekarri zien ekipo zaharrei, eta horrek matxuren ondoriozko geldialdiak area- gotu ohi ditu, baita ekoizpena murriztu ere, eta horrek ere gorantz bultzatzen ditu pre- zioak.

Azkenik, eta denborari lotu- ta, logistika dago. Jardueraren geldialdiek erabat desantolatu zuten munduko garraioa. Edu- kiontzi hutsak portu batean badaude eta beste batean kar- gatu behar badira, lehenik ha- ra eraman behar dira, eta ho- rrek, ezinbestean, atzeratu egingo du salgaien entrega, eta zerbait premiaz behar de- nean, jendeak ordaindu egiten du hori lortzeko behar dena.

Aurreikusitako denbora desfa- sea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da ordaindu beharrekoa.

Horregatik, zalantzarik gabe, urteko izarretako bat izan den inflazioa ez da aurtan hasi, atzetik dator. Izan ere, iaz, pre- zioen igoera %6tik gorakoa izan zen Euskal Herrian, baina aurtan %10era iritsi da hilabe- te batzuetan, eta zenbait atale- tan, elikaduran, adibidez, %15 ingurukoa da. Aurreko guztia- ri eguraldia gehitu behar zaio –kasu honetan ere denbo- ra, baina meteorologikoa–, uz- tak gogor kolpatu baititu. Az- kenean, badirudi inflazioaren igoera Ukrainako gerrarekin batera hasi zela, baina, egia esan, askoz lehenago hasi zen eta desorekatze horiek desagertzen hasi arte iraungo du, desagertzen badira.

Ukrainako gerra

Ukrainako gerrak bi ondorio izan ditu prezioen gorakadan. Horietako bat bera ere ez da ia aipatu ere egiten. Edozein ge- rrak beti du eragin inflazionis- ta ekonomian. Ez da ulertzen zaila: gerran merkantzia ugari sortzen dira –blindatuak, tan- keak, hegazkinak, armamen- tua, munizioa, etab– suntsi- tuak izan daitezen. Hau da, gerrak baliabide ugari kontsu- mitzen ditu, beste ekoizpen erabilera batzuetatik ateratzen direnak, eta ez die inolako onurarik uzten ez ekonomiari

ez gizarteari, industria militarri aparteko dibidenduak uzten dizkion arren. Gainera, militarrei ordaindutako soldatek gora egin dute, eta, beraz, baita ondasunen eskariak ere. Hala ere, merkantzien eskaintza murriztu egiten da; izan ere, lehen ongariak ekoizteko baliatzen zena, adibidez, lehergailuak egiteko erabiltzen da orain; eta metalezko hodiak ez dira bizikletetarako, armetarako baizik, eta abar. Desoreka gero eta handiagoa bilakatuko da.

Gerrak inflazioa elikatzen duen bezala, gastu militarrek ere hala egiten du, nahiz eta gerrarik ez egon. Efektua berdina da: ekoizpena suntsitu ez arren, zertarako balio du tankeak izateak? Zer eragin du jendearen ongizatean? Bakar bat ere ez. Gastu hori ez da batere produktiboa, eta, gainera, handitzen jarraituko du, Ukrainako gerraren eta NATOko herrialdeen gastu militarra BPGaren %2ra iristeko hartutako erabakiaren ondorioz. «Bakearen dibidenda» deitzen zutena desagertu egin da, eta horren ordeztu prezioak gorantz bultzatzen dituen gastua geratuko da.

Eta beste maila batean dago NATOko herrialdeek Errusiako ekonomia zigortzeko hartu duten erabakia. Errusiako produktu energetikoak erostea debekatu dute, orain arte EBko kontsumoaren zati



Prezioak ikaragarri igo dira azken urtean, baina inflazioa Ukrainako gerraren aurretik zetozen. Endika PORTILLO | FOKU

handi bat zena, baina zeharka erosten jarraitzen dute, hori bai, dezente garestiago ordainduta. Eta horrek eragin zuzena du gainerako guztia- ren prezioetan. Horri gehitu behar zaio debekatutako beste lehengai askoren salneurria; hegazkinak egiteko titanioarena, adibidez. Normalean erosten jarraitzen dute, baina zeharka, eta horrek kostu gehigarria dakar. Eta pantomima honetan, bitartekariak aberasten ari dira, herritarrek poltsikoetan sufritzen duten bitartean.

Oharkabea pasatu diren bi alderdi

Alde batera utzita NATOk Ukrainako gerrari aurre egiteko eta zigorren bidea hedatzeko daukan politika ez oso burutsua –Europako herritar- rarak ari baitira ondorioak ordaintzen–, Europar Batasuna- ren beste bi erabakik ere agerian utzi dute egungo krisia, inflazioaren gorakadare- kin zerikusia duena.

Europar Batasunaren ezau- garri den espiritu liberalare- kin erabaki zen energia beza- lako oinarritzko hornidura batek eskaintzaren eta eska- riaren arauari jarraituz fun- tzionatu behar zuela. Horre- tarako, energia konpainia nagusiak pribatizatu ziren, EBren agindupean. Herrialde batzuek bakarrik mantendu dute energia sortzeko plan- ten zati bat kontrol publikoa- ren pean, hala nola frantses Estatuak. Horren ondorioz, aktibo horiek guztiek talde handi (oligopolio) gutxi bat- zuen eskuetan amaitu zu- ten. Orain talde horiek ener- giaren eskaintza eta eskaria kontrolatzen dute, eta beren ustez komenigarriak diren prezioak finkatzeko moduan daude, etekinak areagotzeko. Eta egitura pribatu horiek urre bihurtzeko aprobetxa- tzen ari dira. Izan ere, dagoe- neko jakinarazi dute aurten mozkin errekorrak pilatu di- tuztela.

Eta Europar Batasunak teo- rian energiaren merkatua in-

dartzeko hartu duen beste erabakia epe luzeko kontra- tuak desagiten joatea izan da, prezioak eskura dauden mer- katuei (epe laburreko sal- mentarako merkatuak) begi- ra egon daitezen. Merkatu horiek egun osoan zabalik dauden dendak bezalakoak dira. Ogirik gabe geratzen ba- zara, han aurki dezakezu edo- zein momentuan, baina ga- restiago. Azkenean, larrialdi baterako dendak dira, ez egu- nero erostekoak. Hasieran, eskaintza handia zenean –denda askok ireki- tzen zuten egun osoan–, energiaren prezioak jaitsi egin ziren, baina kapital fun- tsak sartu ahala, espekula- zioak gora egin du eta orain merkatu horiek prezio estra- tosfetikoak finkatzen dituzte. Hala, Alemania eta beste he- rrialde batzuk epe luzerako kontratuak sinatzen hasi dira oster, Qatarrekin, adibidez, gas likidotua hornitzeko.

Bi erabaki horiek arrazoi ideologiko hutsengatik hartu ziren. Oinarritzko hornidurak ezin dira eskaintza eta eska- riaren mende egon, eta are gutxiago espekulatzailiek prezioak finkatuz, eta orain luzaroan ordainduko ditugu ondorioak. Izan ere, Europar Batasuna dagoeneko hasi da aztertzen nola erreformatu behar den energiaren merka- tua deritzon hori. Implizituki aitortzen du hanka barru- raino sartu duela.